**“ULIAZPI” ADMINISTRAZIO FORU ERAKUNDE AUTONOMOA “ULIAZPI”**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-urritasun larria duten pertsonei arreta eskaintzea da, hainbat eratako zerbitzuak eskainiz, hala nola: egoitzakoak, eguneko zentroa, aldi bateko egonaldiak, etxeko laguntza, eta abar.

Uliazpiren eginkizuna zerbitzuak eta babesa eskaintzea da, Gipuzkoan Adimen Urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi-kalitatea garatzen laguntzeko.

Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

- Etxebizitza.
- Eguneko Arreta.
- Atsedena hartzeko edo Aldi baterako Egonaldiak.
- Laguntza Teknikoa.

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan" oinarritua, eta horren bidez bizi-kalitatearen dimentsio ugariak lehenetsi eta zehazten dira (ongizate fisiko nahiz emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, hautatzea eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atseden zerbitzuak honako zentroen bitartez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk. (Bergaran) eta Egogain Zentroaren solairu bat erabiltzen da (Eibarren).

**<u>2020ko aurrekontuan egindako aldaketak, 2019koarekin alderatuz</u>**

**Diru-sarrerak:**

**- 3. Kapitulua: Tasak**

2020ko aurrekontuaren barne daude 2019ko aurrekontuan baino 224.004 euro gehiago. Horren arrazoi nagusia da 2019an sail hori ixtean, hori areagotzea zegoela aurreikusita. Horrez gain, 2020rako etxebizitza zein eguneko zentro modalitateko plazak areagotzea zegoen aurreikusita.

**ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL ADMINISTRATIVO “ULIAZPI”**

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, estancias temporales, apoyo en el hogar, etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias de Gipuzkoa.

Los servicios que proporciona Uliazpi son:

- Vivienda.
- Atención de Día.
- Respiro o Estancias Temporales.
- Apoyo Técnico.

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una “planificación centrada en la persona” mediante la cual se prioriza y concentran las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones o inclusión social, elección y toma de decisiones…) en función de sus necesidades y preferencias.

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

**<u>Modificaciones del presupuesto 2020 sobre el 2019</u>**

**Ingresos:**

**- Capítulo 3: Tasas**

El presupuesto del 2020 incorpora 224.004 euros más que el 2019, que obedece fundamentalmente al incremento previsto en la previsión de cierre de esta partida en el 2019 y al incremento de plazas de vivienda y centro de día para el 2020.

**- 4. Kapitulua: Transferentzia arruntak Aldundia**

2020ko aurrekontuan, kapitulu horrek 17.419.496 euro ditu; 2019an baino % 2,50 gehiago, hain zuzen ere aurrerago xehatuko den 1. Kapitulua areagotu delako.

**- Capítulo 4: Transferencias corrientes Diputación**

El presupuesto del 2020, contempla en este capítulo un importe de 17.419.496 euros, un 2,50% más, consecuencia fundamentalmente del incremento producido en el Capítulo 1, que más adelante se detalla.

**- 5. Kapitulua: Ondare-sarrera**

-

Ez da inolako aldaketarik aurreikusten.

**- Capítulo 5: Ingresos patrimoniales**

No se prevé ninguna variación.

**- 7. Kapitulua: Kapital-transferentziak**

2020. urterako, 2019ko inbertsio zuzkidura bera aurreikusten da: 460.000 euro.

**- Capítulo 7**: **Transferencias de capital**

Para el 2020, se contempla la misma dotación para inversiones que en el 2019, 460.000 euros.

**- 8. Kapitulua: Finantza Aktiboak**

2020. ekitaldirako ez da inolako aldaketarik aurreikusten.

**- Capítulo 8: Activos financieros**

No se prevé ninguna variación para el ejercicio 2020.

**Gastuak:**

**- 1. Kapitulua: Pertsonalaren gastuak**

Kapitulu honetan aurreikusitako gehikuntza honako kontzeptu hauengatik da:

a) Uliazpik emandako zerbitzuak areagotzea:
2020. urtean zehar, gazteentzako lau etxebizitza plaza gehiago ezarriko dira (eguneko 24 orduko arreta eskaintzen duten osoko plazak) eta eguneko zentroan, berriz, sei plaza gehiago ezarriko dira: hiru urtarriletik aurrera eta beste hirurak irailetik aurrera.
Horrez gain, opor garaietarako laguntzak ere areagotuko dira, etxera joan ahal izatea zaila izaten baita.

b) Beste alde batetik, datozen urterako aurreikusitako soldata igoerek, baita bestelako gaiek ere —hirurtekoak betetzea, errelebo kontratuak…— kapitulu honetako aurrekontua areagotu dute.

**- 2. Kapitulua: Ondasunak eta zerbitzuak**

Kapitulu honek 7.670 euro gehiago izango ditu; 2019an baino %0,95 gehiago, batez ere aurreikusitako prezio igoera dela eta.

**Gastos:**

**- Capítulo 1: Gastos de personal**

El incremento previsto en este capítulo se debe a los siguientes conceptos:

a) Incremento de los servicios prestados por Uliazpi.
Durante el 2020 se van a incrementar cuatro plazas de vivienda para jóvenes (plazas integrales 24 horas al día) y seis plazas de atención de día, de las cuáles tres se pondrán en marcha desde enero y otras tres a partir del mes de septiembre.
Asimismo se van a incrementar los apoyos en periodos vacacionales, debido a la dificultad de poder ir al hogar familiar.

b) Por otra parte, el incremento salarial previsto para el próximo año, así como otras cuestiones cómo cumplimiento de los trienios, contratos de relevo,… generan incrementos de este capítulo.

**- Capítulo 2: Bienes y servicios**

Este capítulo sufre un incremento de 7.670 euros, un 0,95% sobre el del 2019, motivado fundamentalmente por el incremento de precios previsto.

- **6. Kapitulua: Inbertsio Errealak**.

2020. urterako, kapitulu honen zenbatekoa 460.000 euro da, 2019an bezalakoa. Zenbateko horrekin, urtero egin beharreko berrezarpen lanez gain, aplikazio informatikoak garatzea ere aurreikusi dugu, baita ikuztegia Donostia zentrotik Ategorrietara lekualdatzea eta Zubietako etxeetako bateko berokuntza sistema berritzea ere. Gainera, hainbat urtetarako 117.500 euroko aurrekontu bat izango dugu 2021. urterako. Horri esker, Zubieta zentroko berokuntza sistema aldatzeko proiektua garatu ahal izango dugu.

- **Capítulo 6: Inversiones Reales**

La cuantía en este capítulo para el 2020, es de 460.000 euros, cifra igual que la del 2019. Con este importe, además de las reposiciones que anualmentoe se deben de realizar, así como el desarrollo de las aplicaciones informáticas, contemplamos el traslado de la lavandería del Centro Donostia a Ategorrieta y la reforma de la calefacción de una villa de Zubieta. Además contamos para el ejercicio 2021 con un plurianual de 117.500 euros que nos permitirá avanzar en el desarrollo del proyecto de cambio de calefacción en el Centro Zubieta.